



Ekaitz Maiz "Meconi" bidean, 8a (Raco de la coma ciosa, Margalef)

EKAITZ MAIZ

SASOI BETEAN

Ekaitz Maiz etxauriarra sasoi betean dago, azken urteetan ohi bezala. Nekaezi-na dela esan genezake; eskaladaren hainbat arlotan dihardu, guztietan goi-mailako jarduerak eginez. Bere hitzetan, motibazioa da gakoa.


Ekaitzen azken jardueren artean aipagarriak dira esaterako Karakorumen dagoen Mun Brakk II-an (5430 m) egindako irekiera Josu Linaza, Markel eta Oier de la Fuenterekin, edota berriki Urko Zabalorekin Peña Montañesa dagoen "Piztu da piztia" era askean kateatzea.

Eskalatzaile nafarrarekin izan gara azken hilabeteetan egin dituen jardueretan sakontzeko asmoz.

Egun, zein jarduera, eskalada edo proiektutan zabiltza murgildurik?

Nagusiki Pirinioetan eta etxe inguruan, hormetan bideak eskalatzen eta zabaltzen. Zorionez, etxe inguruan eta Pirinioetan motibazioa bizirik mantentzen didaten makina bat proiektu edo asmo dauzkat, eta sasoi, baldintzak eta agendaren arabera, batzuei edo besteei ekiten diet.

TESTUA



Ioritz Gonzalez Lertxundi
(Azkoltia, 1980)

Biologian lizentziatua eta irakaslea. Kirol eskalatzaile amorratua; 25 urte baino gehiago daramatza eskalatzen. Hainbat artikulatu ditu idatziz zenbait hedabidetan, Pyrenaican, Berrian, eta Argian esaterako. Egun, Pyrenaicako erredakzioa kidea da.

Paretan, kirol eskaladan, alpinismoan edo izotzean jolasteko inguru ezin hobean bizi gara.

Pasa den astean, urutiago joan gabe, Urko Zabalorekin batera, "Piztu da piztia" (Peña Montañesa) bidean 3 egun egon ginen bidea era askean eskalatzeko. Horrelako jarduerak ikaragarri erakartzen eta motibatzen naute. Baldintza onak, sasoi, agenda eta sokakidea bat datozenean, batzuetan, jarduera politak ateratzen dira. Etxean ere, euriteen aurretik gertu izan nuen proiektutxo batetan nabil buru-belarri. Ia sasoi mantentzen naizen bidea lehorte eta baldintzak hobetzen direnerako.

Epe ertainean, datorren espedizioari forma ematen ere bagabiltza.

Arlo pertsonalean, mendi-gidari ikasketekin jarraitu nahi dut. Egun, eskalada eta mendi-ertaineko gidaria naiz eta goi mendiko gidari ikastarorako prestaketetan nabil.

Baldintza onak, sasoia, agenda eta sokakidea bat datozenean, batzuetan, jarduera politikak ateratzen dira.

Eskalada munduan zein motatako jarduerak egin ohi dituzu? (Kirol eskalada, bide luzeak, ekipamenduak, izotza...).
Nola uztartzen dituzu jarduera mota ezberdin hauek hain maila altuan mantentzeko?

Lehen esan dizudan bezala, motibazioa da niretzat motore nagusia. Gure ingurua (Euskal Herrian, Katalunian, Huescan...) jarduera mota hauek gauzatzeko oso aproposa da. Garaiaren arabera, jarduera mota bat edo bestea egiteko aukera onak ematen dituena. Azkenean, hain desberdinak diruditen jarduerak, haien artean lotura estua dute. Mendiak jartzen ditu jolasguneak eta arauak, eta guk modu desberdinean ekiten diegu. Haitzean, izotzean, mistoan... bide berriak zabaldu, aurretik zabaldutakoak errepikatu...

Batzuetan bide berriak zabaltzeko aukera suertatzen zaigu, eta pareta berri batean bide berri bat zabaltzea bezalakorik ez dago, baina ez da beti nahi bezala burutzen.

Mailarena, ildo berean kokatuko nuke. Gogoia da gakoa, dauden aukeren arabera, motibatzen nauten tokietatik igotzea, sasoiaren oinarria beti kirol eskalada delarik.

Gure ingurua eskalatzeko oso aproposa da. Mendiak jartzen ditu jolasguneak eta arauak, eta guk modu desberdinean ekiten diegu.

Kirola eta aisialdiaz gain, zer esango zenuke eskaintzen dizutela jarduera hauek pertsona moduan?

Niretzat ekarpen nagusia da mundu osoan zehar pertsona eta toki berriak ezagutzea gustuko jarduerak eginez. Mendian sortzen diren egoerek lotura handia sortzen duten bizipenak izan ohi dira. Nire belaunaldikoekin, zaharragoekin edo gazteagoekin lotura hori sortzea, asko atsegin eta eskertzen dut; niretzat ekarpen aberatsa da.

Thalay Sagar (6200m)



Duela gutxi, nik bezala, eskalatzen urte asko daramatzan lagun bati honako hau entzun nion: "atzera begiratu, eta pentsa zenbat pertsonekin eskalatu duzun". Esaldi hori entzun eta hausnartu ondoren, arrazoi zuela ohartu nintzen. Eskalatzeari utzi diotenak, joan zaizkigun lagunak... eta etortzen diren berriak. Oso aberasgarria iruditzen zait. Gazteak nola datozen ikustea motibazio iturri handia da, eta haien bultzada sentitzea oso atsegina da.

Munduan zehar bidaiatzeak, kultura eta izaera desberdinetako jendearekin harremana izateak, eta toki berrietara joan nahi izateak, pertsona moduan osatu egiten nauela iruditzen zait.

Zein ezberdintasun nabarmenduko zenuke eskalatzen hasi zinen garaiaren eta oraingoaren artean?

Asko aldatu dira gauzak. Esaterako, 2021ean Komunismo eta Korseshkaia mendietara egindako espedizioan ikusi geni-

"Koliseum" bidea zabaltzen (Atxar de alano, M10)





Izar Gorri KROKISA

tuen zenbait jarrerak izugarri harritu ninduten. Norbere eta gainontzekoen biziaren gainetik gailurrera igotzea lehenesten zuten hainbat mendizalarekin elkartu ginen, nahiz eta "lagunak" zailtasun egoeran ikusi. Tamalez, horrelako jarre-rak gero eta sarriagoak dira, bereziki "mendi komertzialetan". Esango nuke hausnarketa sakona egiteko gai bat dela.

Azken hilabeteetan egindako jarduera esanguratsuenak?

Udan Mun Brak II (5430m) mendian Markel de la Fuente, Oier de la Fuente eta Josu Linazarekin hilabete pasatxoko espedizioan zabalduko bidea, "Izar gorri, mamuon betiko argi", iraila eta urria bitartean Joseba Iztuetaekin Vigne-maleko ipar horman zabalduko "Izotza harri" bidea, Etxaurin kateatu berri duan "Neguko ametsa" bidea (8c inguru izan daitekeena), edota Urko Zabalaekin Peña Montañesa "Piztu da piztia" bidea kateatzea aipatuko nituzke.

Egun, zure iritziz, nola dago osasun aldetik alpinismoa eta eskalada Euskal Herrian?

Maila eta jendeari dagokionez, osasun betean dagoela iruditzen zait. Kirol eskaladan Ainhize Belar mundu mailako eskalatzailea da esaterako. Alpinismoan, Tasio Martin, Mendi, Maialen Rojo, Jon Inoriza, Ibon Mendia, Urko Zabala, Mikel Ezkurdia... eta inguruan ditudan beste asko... haien jarduerak ikustea besterik ez dago.



Korzenevshkaya mendiko gailurrean (7105m)

Sormen lanetan ordea, ez dut hain etorkizun argirik ikusten. Gaur egun, batez ere kirol eskaladan, bide berriak ekipatzeko modua kasu batzuetan ez da egokiena; 2024an, 80. hamarkadatik eskalatzen den pareta batean, pikatu eta sikatuz betetako "bide berri bat" ekipatzea edo beste bide batzuen artean bariante bat ekipatzea adibidez. Euskal Herritik kanpo, goitik ekipatutako paretako bideak "zabaltzen" ari dira, *removable boltak* direlakoak erabiliz, gainera pikatuak eta sikatuak ipiniz... "no coment". Nik oso argi daukat, jakitun banaiz behintzat, ez naiz bide mota horien kontsumitzailea izango. Pertsonalki, horrelako gauzek triste jartzen naute eta eskalatze motibazioa kentzen didate.

Norbere eta gainontzekoen biziaren gainetik gailurrera igotzea lehenesten zuten hainbat jarrera ikusi izan ditut azken aldian. Tamalez, horrelako jarrerak gero eta sarriagoak dira.

Identifikatua sentiarazten zaituen esaldi edo lemaren bat?

Mikel Zabazak dioen bezala, espedizio edo jarduera batean, eta hurrenez hurren, garrantzitsuena honako hau da: Guztiok itzuli, lagun bezala itzuli eta gailurra edo jarduera eginik itzuli.

Guztiz bat nator esaldi horrekin eta hurrenkerarekin. Beti bete beharko litzateke.



Galdetutakoaz gain aipatzea nahiko zenukeen zerbait?

Eunate institutuko irakaslea den betiko lagun batek honako hau esan ohi dit: "zure bideen izenekin, historiako eskola bat eman liteke". Ez dakit hainbesterako den, baina bizi izan ditugun garaien isla izan ohi dira bideen izenak, eta badaude garai bakoitza nolabait markatu izan duten izenak. Oso oroitzapen onak ditut 1995. urte inguruan Itoitz eskalada eskola sortzen ari ginenean izan genituen hainbat bizipenen inguruan. Urtegiaren aurkako mugimendua pil-pilean zegoen, oso giro bizia eta polita zen, eta eskalatzaileok, gure aldetik ere "bultza egiten genuen".

Horretaz gain, lehen ere aipatu dut, baina gaur egun, zenbait tokitan jarraitzen diren bide berriak ekipatzeko moduak triste jartzen nau. Barianteak, sikatuak eta pikatuak. Kasu batzuetan guztiak batera... rokodromoetako joerak paretara eramatea bezala da. Normala da rokodromo batean espazioaren aprobetxamendua ahalik eta gehien optimizatzea. Baina niretzat behintzat, eskalada bide batek zerbait gehiago izan behar du, logika bat, jarraitzeko bide bat... Mendiko ibilbideetan, bide bakar eta garbi bat izan beharrean, artalde eta ahuntz taldeek egiten dituzten bidexkak bezala, azkenean ezin da jakin zein den bide egokiena. Eta hori helduleku artifizialik erabili gabe. Azken horiek jokoan sartzea, gaur egun, tamalgarria iruditzen zait.

"French Route" (Petit tour, 6c)

